

Enpresa kultura... zaharra



IVÁN GIMÉNEZ
KAZETARIA

Antonio García Fernández lan harremanen modernizazioaren aitzindaria izan zen. 1957an, Jotsa enpresa eraikitzailea sortu zuen Madril. Frankismoaren babes osoarekin, langileentzako auzo asko eraiki zituen, hirigintza traketsa eta baldintza txarrak baliatuz. Baina, Antonio jatorra eta enplegatuen gertukoa omen zen: “Ez dut inoiz inor kaleratu, eta inor ez da inoiz nire enpresatik beste batera joan, eskaintza hobe baten bila”, azpimarratzen zuen aukera zeukan bakoitzean. “Familia-enpresa gara, 1.000 lankideren familia; gurea odola-loturatik harago doa; kapitala eta lana uztartzen ditugu Espainiaren zerbitzura”.

Bere enpleguentzako jaiak antolatzen zituen eta “denok gara enpresa” leloa asmatu omen zuen. Opus Deiren supernumerarioa zenez, erakunde horren oinarriak praktikan jartzen zituen, frankismoari geruza xumea eta adeitsua emanaz. Ez da harritzekoa, beraz, Lan Merituen Urrezko Domina Francoren eskutik jaso izana. Agian, ez du garrantzia handirik, baina Antonio Garciak Jotsa sortu zuen bere aitagarrebari esker,

Adegik gaur saltzen duen enpresaren kontzeptu berria (“proiektu partekatu bat”), 60ko hamarkadako Opus Deik “lokarri organiko batek lotutako kausa komunen aldeko gizonen taldea” deitzen zuen

Juan Obregón Toledo. Bere bazkide kapitalista zen, eta bide batez, urteen poderioz Ana Obregón ospetsuaren aitona ere bihurtuko zena.

Ikusi dugunez, Adegik gaur saltzen duen enpresaren kontzeptu berria (“proiektu partekatu bat”), 60ko hamarkadako Opus Deik “lokarri organiko batek lotutako kausa komunen aldeko gizonen taldea” deitzen zuen. 1967an Francok emandako Urrezko Dominaren oinordeko enpresariak gugandik oso gertu daude. Formula bera saldu nahi digute, gaur egungo *power pointak*, ko-

lorezko grafikoak eta txosten dotoreak erabiliz, frankismoaren zuri-beltzezko NO-DOaren ordez.

Euskal patronalek “hirugarren bidea” ere deitzen diote: ez dago ugazabarik, ez langilerik. Ez, beraz, interes ezberdinik ere. Denok txalupa berean arraunean, denok norabide berean. “Enpresaren eta langileen harremanak zuzena izan behar du”, eta gutxi batzuen helburua (etekinak handitzea) denon xedea bihurtu behar da, “proiektu partekatu batean, lan harremanen blokeoa gaindituz”.

Hain zuzen ere, eta beste adibideen artean, hor dago Sidenor (Azpeitia) enpresan gertatutakoa: kaleratze eta erregulazio-espeditenteak erabilita, jabeek “kultura berria” abian jarri dute, langileen ordezkariak saihestu nahian. Obregonen aurretiko opustarrak bezainbeste merituekin egin dutenez, eta 1967an Francok egin zuen antzera, aurten Adegik patronalak Enpresa Kultura Berria saria eman dio Sidenorri. Baina sasikultura hori oso zaharra da. Ana Obregonen aitona baino zaharra goa. Orain esplotazioari kolaborazioa deitzen diote. Kolorez, hori bai. ●

 ARGIA

943 371 545
publitz@argia.eus
www.argia.eus/tariffak

Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.

Jarri publizitatea hemen